# I DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

# ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DISPOSICIONES Y RESOLUCIONES ADMINISTRATIVAS

*- Acuerdos del Consejo de Diputados*

171

**ACUERDO del Consejo de Diputados 967/1998, de 31 de diciembre, relativo a la aprobación definitiva de la modificación parcial de la Delimitación de Suelo Urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Salvatierra.**

Por Orden Foral número 1.426/1998, de 18 de noviembre, se aprobó con carácter provisional, la modificación parcial de la Delimitación de Suelo Urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Salvatierra.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Salvatierra, disposición que se realizó con fecha 19 de noviembre de 1998, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Salvatierra, con fecha 20 de noviembre de 1998.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el plazo de quince días desde la notificación, tal y como se especifica en el artículo 5º de la referenciada Orden Foral, el Ayuntamiento de Salvatierra no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

ARTICULO PRIMERO.- Aprobar la modificación parcial de la Delimitación de Suelo Urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Salvatierra, recogiendo la modificación y ampliación del suelo calificado como Sistema General de Cementerio, situado en suelo no urbanizable, de conformidad con la modificación puntual realizada a las Normas Subsidiarias de Planeamiento, aprobada por Orden Foral número 751/1998, de 29 de octubre.

ARTICULO SEGUNDO.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

ARTICULO TERCERO.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Salvatierra, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1.080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 31 de diciembre de 1998.— El Diputado General, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

## XEDAPENAK ETA ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

*- Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

171

**967/1998 ERABAKIA, abenduaren 31ko Diputatuen Kontseiluarena, zeinen bidez Aguraingo udal barrutian egindako, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako Hiri-Zoruaren Mugaketaren aldaketa partzialaren behin-betiko onespena dela-eta**

Azaroaren 18ko, 1.426/1998 zenbakiko Foru Agindu bidez, Aguraingo udal barrutirako egindako, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri zoruaren Mugaketaren aldaketa partziala behin-behingorako izaeran onestu zen.

Aipatutako legezko arauteriaren xedatze zatiaren 4. artikuluan, Aguraingo Udalari hori jakinarazteko agintzen zen; xedapen hori 1998ko azaroaren 19an gauzatu zen eta 1998ko azaroaren 20an Aguraingo Udalak jaso zuen.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen, uztailaren 19ko, 42/89 Foru Arauak, bere 11. artikuluan, 4. atalean, ezartzen du, dagokion Udal bakoitzari entzuteko epea hamabost egunekoa jartzen du, bidezkoak iruditzen zaiona informatu dezan.

Aipatutako Foru Aginduaren 5. artikuluan zehazten den bezala, jakinarazpena egin zenetik hasita 15 eguneko epea amaitu delarik, Aguraingo Udalak ez du hartutako ebazpenarekin inolako adostasunik azaldu.

Esandakoagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatuaren proposamenez eta gaurko egunean Diputatuen Kontseiluak egin duen bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT:

LEHENENGO ARTIKULUA.- Aguraingo udalerriarentzat egindako, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri zoruaren Mugaketaren aldaketa partziala onestea, urriaren 29ko, 751/1998 zenbakiko Foru Agindu bidez onestutako Plangintzako Arau Subsidiarioei egindako aldaketa puntualarekin bat, zoru ez-urbanizagarrian dagoen, Hilerriko Sistema Orokor bezala kalifikatutako zoruaren aldaketa eta zabalkuntza jasoz.

BIGARREN ARTIKULUA.- Aurrekoa horrela izan arren, kontutan izan behar da, hiriguneetatik kanpo kokatutako, hiri izaerako eraikuntzekin okupatutako zoruen tratamendurako, Ondasun Higiezinen Zerga arautzen duen, uztailaren 19ko, 42/89 Foru Arauaren 2. artikuluak, b) atala, 1, 2 eta 3 puntuak, ezarritakoa.

HIRUGARREN ARTIKULUA.- Oraingo Erabaki hau Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean eta Lurralde Historikoan gehien irakurtzen diren egunkarietan argitaratuko da. Gainera hamabost eguneko epean jendaurrean jarriko da, interesa dutenek bidezko erreklamazioak egin ditzaten. Jendaurrean jartze hori Aguraingo Udaleko Bulegoetan egingo da, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen, uztailaren 19ko, 42/89 Foru Arauaren 11. artikuluak, 5. atala, eta hori arau bidez garatzen duten abenduaren 15eko Dipututuen Kontseiluaren 1.080/1992 zenbakiko Foru Dekretuen 7, 8 eta 9 artikuluek esaten duten bezala.

Vitoria/Gasteiz, 1998ko abenduaren 31.— Diputatu Nagusia, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.